

AURREKONTU IREKIAK

LEIOAKO
UDALAK

EMAITZAK
ITZULTZEA ETA
PROIEKTUEN
LEHENTASUNA

LEIOAKO UDALAK, IRAGAN
URTEKO ABENDUAN, 2018KO
AURREKONTU IREKIETARAKO
PARTAIDETZA PROZESUA JARRI
ZUEN MARTXAN, ETA 332
PROPOSAMEN JASO
DIRA.



AURKEZTUTAKO GALDETEGIAK

Abenduaren 22an amaitu zen lehen fasea, eta guztira **141 pertsonak hartu zuten parte** prestatutako bideak erabilita:


- **62 galdetegi** udalerrian jarri ziren postontzietan jaso dira.
- **3** udal bulegoetan.
- **33** jaso dira Leioa Zabalik webguneko online galdetegian.
- **42** leioa.zabalik@leioa.net helbide elektronikoaren bitartez.
- **1** beste bide batzuk erabiliz.





PROPOSAMENAK

Hartutako galdetegietatik, **332 proposamen** jaso dira, eta arlo hauei egiten diete erreferentzia:



Espazio publikoa hobetzeari buruzkoak dira horietako asko. Argiztapena, lan txikiak eta herriko mantentze-lanak, oro har.

Mugikortasunarekin, ingurumenarekin eta, horien atzetik, kirolarekin eta kulturarekin lotuta, proposamen kopuru esanguratsuak lortu dira. **Emaitzen txostena** eta Datu-basea eskuragarri daude Gobernu Irekian: leioazabalik.leioa.net.



EMAITZAK ITZULTZEKO DOKUMENTUA

Egindako ekarpen guztiak aztertu dira, eta Leioa Zabalik plataforman daude eskuragarri proposamenei eman zaizkien erantzunak.



LEHENETSI BEHARREKO PROIEKTUAK

Bigarren fase honetan, ekarpenak aztertu eta hautatu ondoren, **10 proiektu proposatzen** dira, eta leioaztarrek lehenetsi beharko dituzte.

PROPOSAMENA	AURREKONTUA
ARGIZTAPENA HOBETZEA	250.000,00 €
ESPALOIAK HOBETZEA	250.000,00 €
ZENBAIT ASFALTO-TARTE HOBETZEA	250.000,00 €
HAUR PARKEA ETA JOLASAK TORRESOLON	120.000,00 €
CERVANTES PLAZAKO INGURUAK HOBETZEKO PROIEKTUA	80.000,00 €
JOLAS NATURALEN GUNE BAT SORTZEA PINOSOLO PARKEAN	120.000,00 €
BULEBARREKO INGURUETAN ZARATA LEUNTZEKO PROIEKTUA	18.000,00 €
BIDEGORRI SAREA LOTZEA: LANGILERIA-UDONDO ETA ARTATZAGANA-IRLANDESAK	165.000,00 €
ZENTRO ZIBIKOA ETA IKEA LOTURA MEKANIKO BIDEZ LOTZEKO PROIEKTUA	40.000,00 €
LAMIAKOKO NASAKO INGURUAK HOBETZEKO PROIEKTUA	40.000,00 €



2018KO URTEKO INBERTSIOAK

ZUZENDUTAKO PARTIDA

Aurten, Aurrekontu Irekietara zuzendutako partida 840.000 eurokoa da, inbertsioen %25 gutxi gorabehera; horrenbestez, leioaztarrek 2018an egiteko proiekturik interesgarrienak nabarmendu beharko dituzte.



ZELAN AUKERATUKO DIRA AZKEN PROIEKTUAK?

Leioaztar bakoitzak amaierako 10 proiektuak lehenetasunaren arabera ordenatu beharko ditu. 10 puntu emango zaizkio proiekturik garrantzitsuenari edo lehenetasun handienekoari, 9 bigarrenari, eta hala egingo da 1era, hau da, lehenetasun txikiena duen projektura iritsi arte. Proiektu guztiak puntuatu behar dira.



NORK HAR DEZAKE PARTE?

Ondorengo asteetan, Leioan erroldatutako 16 urte edo gehiagoko pertsona fisiko guztiak hartu ahal izango dute parte proiektuak lehenetasunaren arabera ordenatzeko prozesuan, gero, 2018ko udal aurrekontuen zirriborroan sartzeko.

Pertsona bakoitzak behin bakarrik har dezake parte, eta, beraz, datu pertsonalak eman beharko dira. Errepikapenak edo galdetegi bukatugabeak egonez gero, ezabatu egingo dira, eta ez dira kontuan hartuko emaitzak aztertzerakoan.



NOIZ ARTE HAR DAITEKE PARTE?


Parte hartzeko epea **urtarrilaren 26tik otsailaren 18ra** (biak barne) izango da.



*Animatu zaituz
Leioaren
etoskizurean
parte hartzen*



PARTE HARTZEKO BIDEAK



Lehenengo fasean egin bezala, parte hartzeko **bide hauek** erabili ahal izango dira:

A Udaletxea HAZ

Elخالde 1

Gaztelubide HAZ

Langileria 202 (behin-behinean,
Maiatzaren Bata kaleko 3. zenbakia)

B Gobernu Irekiko Atariko formularioa:

leioazabalik.leioa.net

E-mail: leioa.zabalik@leioa.net

C Udal eraikinak:

- Pinuetako Nagusien Etxea.
- Txorierriko Nagusien Etxea.
- Gaztelubide HAZ.
- Udaletxea (Udaltzaingoko sarrera).
- Sakoneta Kiroldegia.
- San Bartolome Kulturunea.

Kalean, honako tokien inguruan:

- Lamiakoko Metro geltokia.
- Udondoko bulebarra (Ikaztegi aparkalekua).
- Ikeamendiko igogailua.
- Mendibile pasabiderako sarbidea (aparkaleku urdina).
- Artatzagane (Bordeoena parkea).
- Artatza kalea (20. zenbakia).
- Kultur Leioa (Jose Ramon Aketxe plaza).
- Estartetxe kalea (haurrentzako jolas-parkearen ondoan).
- Maiatzaren Bata kalea (2. zenbakia).

D Karpak:

Gainera, fase honetan, **informazio karpak** jarriko dira **hiru egunetan** herriko hainbat lekutan, **11:00etatik 14:00etara** eta **16:00etatik 19:00etara**:

- **Otsailak 6:** Leioako Metro geltokiaren inguruan (goizean) eta Sakonetan (arratsaldean).
- **Otsailak 7:** Lamiakoko Metro geltokiaren inguruan (goizean) eta Txorierrin, nagusien etxearen parean (arratsaldean).
- **Otsailak 8:** Pinuetako Maiatzaren bataren kaleko 2. ean (goizean) eta San Bartolome Kulturgunearen parean (arratsaldean).

FORMULARIOA

NAN:

IZENA:

ABIZENAK:

HELBIDEA:

E-MAIL:

PARTE HARTZEKO, BEHARREZKOA DA DATU PERTSONAL GUZTIAK EMATEA; IZAN ERE, HORRELA, UDAL LANGILEEK EGIAZTATU EGINGO DUTE PROZESUAN PARTE HARTUKO DUTEN PERTSONA GUZTIAK UDALERRIAN ERROLDATUTA DAUDELA.



AMAIERAKO PROIEKTUAK

Zure ustez duten garrantziaren arabera puntuatu behar dituzu proiektuak. 10 puntu emango dizkiozu beharrezkoena edo premiazkoena iruditzen zaizunari, eta puntu 1 garrantzi txikiena duenari.

PROPOSAMENA	PUNTUAZIOA
ARGIZTAPENA HOBETZEA	
ESPALOIAK HOBETZEA	
ZENBAIT ASFALTO-TARTE HOBETZEA	
HAUR PARKEA ETA JOLASAK TORRESOLON	
CERVANTES PLAZAKO INGURUAK HOBETZEKO PROIEKTUA	
JOLAS NATURALEN GUNE BAT SORTZEA PINOSOLO PARKEAN	
BULEBARREKO INGURUETAN ZARATA LEUNTZEKO PROIEKTUA	
BIDEGORRI SAREA LOTZEA: LANGILERIA-UDONDO ETA ARTATZAGANA-IRLANDESAK	
ZENTRO ZIBIKOA ETA IKEA LOTURA MEKANIKO BIDEZ LOTZEKO PROIEKTUA	
LAMIAKOKO NASAKO INGURUAK HOBETZEKO PROIEKTUA	

Egin
dezagun
Leioa

